

## **Anje Duhalderen musika sentsibilitatea eta Koldo Amestoy ipuin kontalariaren adierazpenerako aberastasuna besarkatu egingo dira Arriaga Antzokian egingo den errezitaldian**

**Bilbon, 2019ko urriaren 17an-** Beste denboraldi batez Arriaga Antzokiak eta Bilboko Udaleko Euskara Sailak bultzatutako “Literatura eta Musika Euskaraz” zikloa itzuliko da. Datorren astelehenean, urriaren 21ean, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrak, sorkuntzaren bi artisau elkartuko dituen saio berezia jasoko du, abestia eta ahozkotasuna eskutik arituko diren hitzorduan. Elkarrekin ariko dira aurrenekoz eta Arriaga Antzokiak eskainiko du bere kolaborazioaren fruitua.

Musikari eta abeslariak ez du aurkezpen handiegirik behar. 70eko hamarkadatik musikaren bidea egiten ari den Anje Duhalde da. Bakarka edo denok oroitzen ditugun egitasmoeekin, Errobirekin, adibidez, eta baita gure herrietako plazaz-plaza, Akelarrerekin, eta abentura askotan... Duhalderengan azpimarragarriak izan dira beti bere gustua eta sentsibilitatea. Orain, gitarrarekin, harmonikarekin eta abesti batzuekin jantzita, gozaraziko gaitu, oso laguntzaile bereziarekin: Koldo Amestoy.

Koldo ipuin kontalari bikaina da, ahozkotasunaren benetako erreferentea. Beretzat, ipuin bat paradisua da, oso gune berezia, altxorra. Anje Duhalderekin batera emango duen errezitaldian, Koldo Amestoyk aberastasun handia gehituko duten istorioak hurbilduko ditu. Izan ere, mundu osoko ahozkotasunaren enbaxadorea da eta, ondorioz, ipuinen bitartez transmititzeko modukoa den ezagutza handia eskuratu ahal izan du bere ibilbide pertsonalean. Bere lanetan, antzinako ipuin bildumetan inspiratzen da, kondairak eguneratzen ditu, sorkuntza lanen egokitzapek egiten ditu, etab.

### **ARRIAGA ANTZOKIRAKO SARRERAK**

- 12 – 15 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefonoaren bidez eta antzokiko leihatilan, alde zuzeneko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa – ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)